



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2025ko otsailaren 4ko bilkura

Bi mila eta hogeita bosteko otsailaren lauan, arratseko zortzitan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie.

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, , DACHAGUER Peio, HEGUY Antton,. IRIART Jean Claude

Bilkurako idazkari izendatua izan da : FALXA Odile.

Deialdiaren eguna : 2025ko urtarrilaren 31a

Afitxatze eguna : 2025ko urtarrilaren 31a

1. ERABAKIA : INBERTSIO GASTUEN KONTUAN HARTZEA, HASIERAKO AURREKONTUA BOZKATU AITZIN (7.10 nomenklatura)

Auzapezak biltzarkideei oroitarazi die Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L. 1612-1 artikulua araberak, Auzapezak, Herri Biltzarraren baimenarekin, inbertsio gastuak gauzatu, likidatu edo agindu ditzakeela, beti ere aitzineko kontu ekitaldiko aurrekontuko kreditu irekien laurdena gainditu gabe, hots 349 762,00 euro.

Baimen hori ezinbestekoa da, urte hastapenean herriak inbertsio gastu berriak egin behar dituenetarako, ezin baitu aurrekontua bozkatzearen beha egon.

Auzapezak biltzarkideei azaldu die honakoa dela baimena eskatzen duen gastua:

Zuhaitz eremu naturalen antolaketa Antzaramendi eta Lakan: 10 000 euro 212 artikuluan 159 Ekintza – Arbolen landatzea

Zehaztu du, horretarako kredituak badirela aurrekontuan.

Auzapezaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, Herri Biltzarrak,

- **BAIMENA AMEN DIO**, Auzapezari, inbertsio gastuen gauzatu, likidatu eta agintzeko, beti ere aurrekontuan irekiak diren kredituen laurdena gainditu gabe, honako ekintzarentzat:

Zuhaitz eremu naturalen antolaketa Antzaramendi eta Lakan: 10 000 euro 212 artikuluan 159 Ekintza – Arbolen landatzea

Kide kopurua : 15
Hor zirenen kopurua : 11
Balizko boz kopurua : 11
ALDE : 11
KONTRA : 0
ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute.
Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2025ko otsailaren 4an

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2025/02/07an publikatu edo notifikatu ondoan, Eta
Prefeturan pausatu ondoan 2025/02/07an.